

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Interes-tasak, inflazioak, langabeziak eta antzeko magnitudeek zer adierazten duten jakitea eta kontzeptu horiekin lotutako grafikoak interpretatzea.</p>	<p>1.1. <i>Inflazioaren eta langabeziaren kausak deskribatzen ditu, eta haien ondorio ekonomiko eta sozial nagusiak balioesten ditu</i></p> <p>1.2. <i>Interes-tasen funtzionamendua azaltzen du, baita tasa horiek aldatzeak ekonomiaren bilakaeran eragiten dituen ondorioak ere, eta arrazoibide matematikoak aplikatzen ditu hainbat egoeratan interesak kalkulatzearekin zerikusia duten arazoak konpontzeko.</i></p> <p>1.3. <i>Interes-tasekin, inflazioarekin eta langabeziarekin lotutako eduki ekonomikoa duten datu eta grafikoak balioesten eta interpretatzen ditu.</i></p>
<p>2. Garapenerako politika makroekonomikoko zenbait aukera balioesteko gai izatea, dela garapen ekonomikoa, dela gizarte-garapena.</p>	<p>2.1. <i>Europar Batasuneko, Espainiako eta EAeko langabezia-datuak aztertzen ditu, baita aurrera eramaten diren garapen-politikak ere, langabeziaren aurkako borrokari dagokionez batik bat.</i></p> <p>2.2. <i>Prestakuntza ekonomia garatzeko eta langabezia murrizteko tresnatzat jotzen du.</i></p> <p>2.3. <i>Unean-unean, bere aukera-eremuak eta enplegu-joerak ikertzen ditu.</i></p>
<p>3. Globalizazio ekonomikoak, nazioarteko merkataritzak eta integrazio ekonomikoko prozesuek pertsonen bizitza-kalitatean eta ingurumenean zer eragin duten ulertzeko gai izatea</p>	<p>3.1. <i>Munduko herrialde guztietako ekonomien interkonexio-maila balioesten du, eta ikuspegi globala aplikatzen du iritzi kritikoak emateko.</i></p> <p>3.2. <i>Herrialdeen arteko truke ekonomian eragiten duten eta truke hori justifikatzen duten arrazoiak azaltzen ditu.</i></p> <p>3.3. <i>Gaur egungo gertaera ekonomikoak aztertzen eta eztabaidatzen ditu, globalizazioaren eta nazioarteko merkataritzaren testuinguruan.</i></p> <p>3.4. <i>Europar Batasuneko ekonomia- eta moneta-batasuneko prozesua deskribatzen eta komentatzen du.</i></p> <p>3.5. <i>Ingurumen-arazoen eta nazioarteko inpaktu ekonomikoarekin duten harremanaren inguruan hausnarketa egiten du, garapen jasangarria ezartzeko aukerak aztertuz.</i></p>